

NAFARROAKO BAINU-EREMU NATURALAK

Uztarroze ibaia Uztarrozen




Mota: Ibaia | Kokapena: Uztarroze

Uztarrozeko ibai igerilekua Pirinioetako Uztarroze herrian dago, Erronkaribarren. Uztailean, egurrezko oholak jartzen dira zubiaren ondoan, zeharka, ura biltzeko eta, horrela, bainurako behar den sakonera edukitzeko. Urak hotzak dira, eta udan 14 eta 17º C arteko tenperatura izaten dute.

Ekipamendua: Eremuak aparkalekua du. Ez du komunik.

Sarbidea: Otsagabitik etortzean, herriaren sarreran aparkaleku txiki bat dago lehenengo etxeen aurrean (Izabatik etortzean, herriaren irteeran). Ibaian behera metro gutxira, zubiko bi arkuak ura presatzeko erabiltzen dira.



[Nola iritsi](#)